**1161/2016 ebazpena, azaroaren 16koa, Arabako Erakunde Integratu Sanitarioko Zuzendari Kudeatzailearena, zeinaren bidez jarraian adierazitako kategorietan, zerbitzu-eginkizun edo erakunde-arteko aldi-baterako sustapen bidez postuak betetzeko zerrendak irekitzea deitzen den, Osakidetzako administrazio-kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko mugikortasunari buruzko erabakian eta 2015eko ekainaren 10eko erabakian ezarritako prozedurari jarraikiz; azken horren bidez, erakunde publikoko zerbitzu-erakunde guztietan lanpostuak aldi baterako edo behin betiko barne-mugikortasun bidez hornitzeko irizpide orokorrak onesten dira (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 116. zenbakia, 2015eko ekainaren 23koa).**

**Resolución 1161/2016, de 16 de noviembre del Director Gerente de la Organización Sanitaria Integrada Araba, por la que se convoca la apertura de listas para la cobertura de puestos en las categorías que se indican a continuación para ser desempeñadas en comisión de servicios y en promoción interna intercentros en esta organización de servicios, conforme al procedimiento establecido en el Acuerdo de movilidad de 9 de mayo de 2011 del Consejo de Administración de Osakidetza y el Acuerdo de 10 de junio de 2015 se aprueban los criterios para la provisión de puestos mediante movilidad interna, temporal y definitiva en el conjunto de las Organizaciones de Servicios del Ente Público (Boletín Oficial del País Vasco de 23 de junio de 2015 nº 116).**

Deialdi honek Araba ESIko zentroen arteko zerbitzu eginkizuna eta barne sustapen zerrendak eratzeko prozesua jarraitzen du, horren ondorioz, deialdi honen behin betiko ebazpenarekin batera, indarrean dauden Arabako Unibertsitate Ospitaleko zerrendei amaiera emango zaie.

Esta convocatoria continúa con el proceso de constitución de listas de comisión de servicios y promoción interna intercentros de la OSI Araba que pone fin a las listas constituidas en el Hospital Universitario Araba en vigor hasta la resolución definitiva de esta convocatoria.

Aldi honetan ondoren aipatzen diren hurrenez hurreneko kategoriak deituko dituzte:

- GIZARTE LANGILEA
- OSASUN MENTALEKO ERIZAINA
- EMAGINA
- FISIOTERAPEUTA
- ADMINISTRARIA
- ANATOMIA PATOLOGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- DOKUMENTAZIO SANITARIO TEKNIKARIA
- INFORMATIKAKO TEKNIKARIA
- FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA
- GIDARIA

En esta fase se convocan las categorías relacionadas a continuación:

- TRABAJADOR SOCIAL
- ENFERMERA DE SALUD MENTAL
- MATRONA
- FISIOTERAPEUTA
- ADMINISTRATIVO
- TECNICO ESPECIALISTA DE ANATOMIA PATOLÓGICA
- TECNICO ESPECIALISTA DE RADIOTERAPIA
- TECNICO DOCUMENTACION SANITARIA
- TECNICO INFORMATICA
- AUXILIAR DE FARMACIA
- OFICIAL CONDUCTOR

## 1.-Beharrizanen araberako zerrendak zabaltzea:

### 1.1.- Zerbitzu-eginkizunak:

Betekizunak (dokumentuen bidez egiaztatu eta eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako eman beharrekoak):

-Dagokion kategoria eta lanpostu funtzionalean karrerako funtzionarioa, langile estatutarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea, Osakidetzako zerbitzu-erakundeei atxikia, edo langile estatutario finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko gainontzeko erakunde sanitarioetan.

-Zerbitzu aktiboan egotea eta lanpostuak betetzeko eskaera ez egitea interesdunak plaza jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundean.

Osakidetzako langileek ez dute zertan bétekizun horiek bete.

-2. hizkuntza~eskakizuna (derrigortasun-data iraungita daukaten lanpostuetan)

Betekizun horiek guztiak betetzen dituen langilerik aurkeztu ezean, edo indarrean dagoen zerrenda agortuz gero, honelaxe beteko dira lanpostuok:

### 1.2.- Erakunde-arteko aldi baterako barne-sustapena:

Betekizunak (dokumentuen bidez egiaztatu eta eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako eman beharrekoak):

-2. hizkuntza-eskakizuna (derrigortasun-data iraungita daukaten lanpostuetan)

-Karrerako funtzionarioa, langile estatutarioa edo lankontratudun finkoa izan eta Osakidetzako erakunde bati atxikia egotea.

-Zerbitzu aktiboan egotea eta bete nahi den lanpostuaren kategoriaren titulazio-maila

## 1.- Apertura de listas para la cobertura mediante:

### 1.1.- Comisión de servicios:

Requisitos (deberán acreditarse documentalmente y reunirse al último día del plazo de presentación de solicitudes).

-Ser funcionario de carrera, personal estatutario o laboral fijo, adscrito a las organizaciones de servicios de Osakidetza o funcionario de carrera o estatutario fijo del resto de los servicios de salud del Sistema Nacional de Salud de la categorla y puesto funcional de que se trate.

-Encontrarse en servicio activo y efectuar solicitud para la cobertura de puestos en organización de servicios distinta de la que el/la interesado/a tenga plaza en propiedad o se encuentre adscrito/a por reingreso provisional al servicio activo.

El personal de Osakidetza no deberá acreditar el cumplimiento de este requisito

-Perfil lingüístico 2 (para los puestos con fecha de preceptividad vencida).

En el caso de no presentarse personal que cumpla los requisitos anteriores, o en el caso de agotarse la lista vigente, se cubrirá mediante el sistema de:

### 1.2.- Promoción interna temporal entre organizaciones:

Requisitos (deberán acreditarse documentalmente y reunirse al último día del plazo de presentación de solicitudes).

-Perfil lingüístico 2 (para los puestos con fecha de preceptividad vencida).

-Ser funcionario de carrera, personal estatutario o laboral fijo, adscrito a organización de servicios de Osakidetza.

-Encontrarse en servicio activo y pertenecer a otra categoría del mismo nivel de titulación o de nivel inferior que aquella a la que se opta.

-Dagokion lanpostuaren erakundeari ez den beste bati atxikita egotea.

-Karrerako funtzionario edo pertsonal estatutario finkoa izateko izendapenik edo lan-kontratu finkorik ez edukitzea lortu nahi den kategorian, egoera administratiboa edozein dela ere, izendapen edo kontratu horri dagokionez.

-Lortu nahi den kategoria eta lanpostuan aritzeko behar den titulazioa edukitzea.

-Kategoria bereko lanposturen batean aldi-bateko barnesustapenean egonez gero, egoera horretan urtebetetik gora egotea, etenik gabe.

-Estar adscrito a una organización de servicios distinta de aquella a la que se opta.

-No tener en la misma categoría a la que se opta nombramiento como funcionario de carrera o personal estatutario fijo, o contratado laboral fijo, cualquiera que sea la situación administrativa en la que se encuentren en relación con dicho nombramiento o contrato.

-Estar en posesión de la titulación requerida, para el acceso a la categoría y al puesto funcional al que se opta.

-Si está en promoción interna temporal en puesto de la misma categoría, llevar más de un año de forma ininterrumpida en esta situación.

**2.- Barematu beharreko merituak:**

**2.- Méritos a baremar:**

**2.1.- Zerbitzu-eginkizunetan:**

**2.1.-En el caso de comisión de servicios**:

• Egindako zerbitzuak baloratzeko, Osakidetza Euskal osasun zerbitzuak deitutako azken lekualdatze-lehiaketako deialdiko oinarrietan lanbide-esperientzia zenbatzeko ezarritakoa hartuko da kontuan, jabetzako lanpostuaren kategoriari dagokionez.

Eskabideak aurkezteko lehen egunera arte aitortutako zerbitzu-denbora zenbatuko da.

• Euskera-ezagutza baloratzeko, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Euskara Planean ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat, azken lekualdatze lehiaketan dagokion kategoriarako xedatutako balorazioa emanda.

• Se valorarán los servicios prestados en los términos establecidos para el cómputo de la experiencia profesional en la categoría en que, se ostenta el puesto en propiedad en las bases de las convocatorias del último concurso de traslados convocado por Osakidetza.

Se computará el tiempo que tuvieran reconocido hasta la fecha de la apertura del plazo de presentación de solicitudes.

• La valoración del conocimiento del euskera se realizará conforme a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, y en el Plan de euskera de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con la valoración contemplada en la convocatoria del último concurso de traslados para esa categoría profesional.

**2.2.- Aldi-baterako barne-sustapenean:**

A. Enplegu publikoaren eskaintzako oposizio-fasea (100 puntu gehienez).

Izangaiek EPE 2011 ko oposizio-fasean lortutako puntuazioa hartuko da kontuan.

B. Lehiaketa-fasea (80 puntu gehienez)

B.1 Lan-esperientzia

Egindako zerbitzu-denbora balóratuko da, 80 puntu arte gehienez; horretarako kontuan hartuko dira azken EPEn lan-esperientzia zenbatzeko dagokien kategorietako lanpostuak barne sustapen bidez bete zituzten langileei jarritako Irizpideak.

Eskabideak aurkezteko lehen egunera arte aitortutako zerbitzu-denbora zenbatuko da.

B.2 Euskara

Euskera-ezagutza baloratzeko, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Euskara Planean ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat, EPEn dagokion kategoriarako xedatutako balorazioa emanda.

**3.- Eskabideak aurkeztea**

Araba ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu behar dira eskabideak (Jose atxotegi, s/n, 01009 Arrasate-Mondragon), astelehen eta ostirala bitartean, 08:00 15:00 artean; bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluak ezarritako edo~ein b,ide ere erabil daiteke. Deialdi honen I. eranskinean eskabidearen egiteko eredua eskura dago

Eskabideak aurkezteko, epea 20 egun

**2.2.-En el caso de promoción interna temporal:**

A. Fase de oposición de la oferta pública de empleo (máximo 100 puntos).

Se tendrá en cuenta la puntuación obtenida por los aspirantes en la fase de oposición de la OPE 2011.

B. Fase de concurso (máximo 80 puntos)

B.1 Experiencia profesional

Se valorarán los servicios prestados, hasta un máximo de 80 puntos, en los términos establecidos para el cómputo de la experiencia profesional del personal que accedió a través del tumo de promoción interna en cada convocatoria de la respectiva categoría en la última OPE finalizada.

Se computará el tiempo que tuvieran reconocido hasta la fecha de la apertura del plazo de presentación de solicitudes.

B.2 Euskera

La valoración del conocimiento del euskera se realizará conforme a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, y en el Plan de euskera de Osakidetza-Servicio vasco de salud; con la valoración contemplada en la convocatoria de OPE para esa categoría profesional.

**3.- Presentación de solicitudes**

Las solicitudes se presentarán en la dirección de personal de la OSI Araba (c/ Jose Atxotegi s/n 01009 Vitoria-Gasteiz) de lunes a viernes en horario de 08:00 a 15:00 horas o por cualquiera de los medios que establece el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. En el anexo I de esta convocatoria está disponible un modelo de solicitud

El plazo de presentación de solicitudes será

baliodunekoa da, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, Pertsonaleko Zerbitzuan egiaztatuta dagoenean izan ezik:

• Titulazioa
• ,Osakidetzatik kanpo egindako zerbitzuen ziurtagiria
• Euskararen ezagutza egiaztatzen duen titulazioa
• Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen edo balioa erants dezakeen edozein meritu aurkeztu ahalko da.

**4.- Balorazio batzordea**

Batzorde integratu bat eratuko dute Medikuntzako Integrazio asistentzialeko zuzendariak, Erizaintzako zuzendariak eta pertsonaleko zuzendariak. Horiek horrela, ,Pertsonaleko zuzendaria Batzordeko presidentea izango da pertsonaleko teknikari bat idazkari lanetan arituko delarik.

Izangaien behin-behineko zerrendak lortutako puntuazioaren araberako hurrenkeran argitaratuko dira; haren aurkako erreklamazioa jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertuta, Batzordeak behinbetiko zerrendak onartuko ditu, argitaratu daitezen; bertan adieraziko da zein egunetatik aurrera aplikatuko diren kategoria bakoitzeko zerrendak.

Zerrenda berriek aurreko deialdietatik eratorritakoak ordeztuko dituzte.

Behin-betiko zerrendak argitaratu ostean, etengabe egongo dira zabalik zerrenda horiek, eskabide berriak erantsi ahal izateko; indarrean dagoen araudiaren arabera eguneratuko dira zerrendak.

**5.- Aldi-bateko barne-sustapen/zerbitzu-eginkizunen iraupena:**

Zerbitzu eginkizunaren iraupena lanpostua legez bete arte iraungo du, nahiz eta edozein unetan askatasun osoz baliogabetu ahal den emandako zerbitzu eginkizuna.

de 20 días hábiles a partir del día siguiente al de la fecha de publicación.
Documentación a aportar junto con la solicitud, salvo que conste acreditada en el servicio de personal:

• Titulación
• Certificado de servicios prestados fuera de Osakidetza
• Titulación acreditativa del conocimiento de euskera
• Se podrán aporta cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño de este puesto de trabajo.

**4.- Comisión de valoración**

Se constituirá una Comisión integrada por el Director de integración asistencial del área médica, la Directora de enfermería y el Director de Personal, el cual ejercerá la presidencia, actuando como secretario un técnico del Departamento de Personal.

Se publicarán listas provisionales de los aspirantes por orden de puntuación, contra las que se fijará un plazo de reclamación de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente al de su publicación.

Examinadas las reclamaciones presentadas, la Comisión aprobará los listados definitivos para su publicación, donde constará el día de inicio en la aplicación de las listas para cada categoría.

Los nuevos listados sustituyen a los derivados de convocatorias anteriores

Publicados los listados definitivos, las listas estarán abiertas permanentemente para incorporar nuevas solicitudes, que se actualizarán conforme a la normativa reguladora.

**5.- Duración de la promoción interna temporal/comisión de servicios:**

La duración será hasta la cobertura reglamentaria del puesto, sin perjuicio de que pueda revocarse libremente en cualquier momento la comisión de servicios concedida.

**6.- Ebazpenaren aurkako errekurtsoak:**

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean 112., 121.a eta hurrengoak ezarritakoaren arabera, eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen arabera, halaber Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, Ebazpen honen aurka, eta horren garapenean ematen diren behin betikoen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari hilabeteko epean jakinarazpenetik hurrengo egunean hasita.

**6.- Recursos contra la resolución**

De acuerdo con lo establecido en los art. 112 y 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común, y en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, así como en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales de Osakidetza/Servicio Vasco de Salud, contra esta Resolución y contra las que, con carácter definitivo, se dicten en su desarrollo podrá ser interpuesto recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza/Servicio Vasco de Salud en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su notificación

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 16a

**ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEA**
Araba Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko Zuzendaria
(233/2015 Ebazpena, martxoaren 3ko)

Vitoria-Gasteiz, 16 de noviembre de 2016

**DIRECTOR GERENTE DE LA ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA**
Director de Personal de Organización Sanitaria Integrada Araba
(Resolución 233/2015, de 3 de marzo)

Osakidetza
ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO DE ARABA
PERTSONALA
PERSONAL

**Iz./Fdo.: FCO. JAVIER PEDROSA RODERO**

**IRAGARKI HAU ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI TAULAN JARRIKO DA 2016KO AZAROAREN 17AN**
**PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DIA 17 DE NOVIEMBRE DE 2016**

## I. ERANSKINEA –ESKABIDEAREN EREDUA
## ANEXO I MODELO SOLICITUD

### ARABA ESIKO ZERBITZU EGINKIZUNETAKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO BARNE SUSTAPENAREN DEIALDIA
### CONVOCATORIA DE COMISIONES DE SERVICIOS Y PROMOCIONES INTERCENTROS DE OSI ARABA

**DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES:**

| | |
|---|---|
| **Izen-Abizenak/Nombre y Apellidos:** | |
| **NAN/D.N.I.:** | **Pertsonaleko zenbakia/ Numero de personal:** |
| **Jatorrizko zerbitzu erakundea/ Organización de servicios de procedencia:** | |
| **Tfno finkoa/Tfno fijo:**<br><br>**Tfno mugikorra/<br>Tfno móvil:** | **E-posta/ Correo electrónico:** |

- **Zerbitzu eginkizunak/ Comisiones de servicios**

**KATEGORIA/CATEGORIA:**

- **Erakundeen arteko barne sustapena/ Promoción interna intercentros**

**KATEGORIA/CATEGORIA:**

**AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA/ DOCUMENTACION APORTADA:**

| |
|---|
| |
| |
| |
| |
| |
| |

**Data eta Interesdunaren sinadura /Fecha y firma del interesado/a**



José Atxotegi zk.g. / 01009 Vitoria-Gasteiz / Araba/Álava
Tfno. 945 007 000